

Me/memoria



Me/memoria

➔ **W**ikitoki, 2018.02.20 (asteartea), Aste bi lehenago Euskara egonaldira aurkeztutako proiektuari hasiera emateko unea heldu da. Bertan Euskera eta Teknologi berrien arteko elkar-lan baten bidez hizkuntza honen presentzia eta erabilpena sustatzea proposatzen da;

“Teknologia berri hauek dagoenez gure artean dugun harre-mantzako modua eraldatu dute, eta aldi berean hizkuntza bera ere; Emoji bitarteko hizkuntza, GIF formatuko irudiak, Sticker mezuak eta MEMEen kultura dagoeneko eguneroko-tasunean normalki erabiltzen ditugun tresnak dira.


Hemen planteatzen dudun proiektuak horri egiten dio koxk! Interneten biraka dagoen material guzti horri biratxo bat emanez Euskera gure hizkuntza bertan atxikitzea eta bildu-ma txiki bat eginez hau landu eta naturaltasunez gure egu-neroko tresna bat bilakatzea.”

➔ **A**ste bete, 2018.02.28 (asteazkena), on-doren, zortzi egun hain zuzen ere, eskuartean daukagun proiektua abiatzeko Irudi-Bilduma bat garatzen da. Bertan Wikitokitarrek aurrez erabilitako eta planteatutako ideiarekin bat da-tozen hainbat iturritatik idrudiak biltzen hasten gara. Imaginak, diagrama desberdinak, mun-duan zehar famatu egindako meme eta GIF for-matuko irudiak, umorezko komiki atalak...

Imaginario zabal honetatik egindako ikerkunt-zatik ezarriko dugu ondoren datorkigun proiek-tuaren nortasuna.



➔ **O**ndorengo, 2018.03.07 (asteazkena), hi-labeteetan landu beharrekoa gutxi gora behera finkatutzat emanda Wikitoki sortzen duten nor-banako guztiei proiektuaren ibilbidea nondik nora abiatuko den jakinarazten da E-mail for-mal baten bidez. Bertan “ONLINE” arremanak aipatuko ditugu berriz ere. Wikitokitarren arte-ko erlazioan Euskarari egin nahi diogun tokitxo birtual hori.



Me/memoria

➔ **E**uskararen erabilera moderno bat lantzea, 2018.03.15 (osteguna), errepikakorra da bai, baina hori dugunez proiektuaren muina, esaldi horri KAÑA ematea besterik ez zaigu gelditzen, eta hori da Wikitokiko asanbladan egin zena. Bertan elkartu ginen beraiek “Ondartza” deitzen dioten txoko zabalean. Aurreko astean pasatako “BRIEFING”a birpasatu ondoren hainbat puntu jorratu genituen denon artean:

- Euskaratu edo eta eta sortu (proposatu) hitz berriak Wikitokiren glosarioaren arabera
- Piktograma sinpleen glosario bat sortu ilustratoren bidez, adibidez, erraz erabiltzeko (puzle baten tankeran).
- Espresio guztiak euskaratuko dira hala berriak sortuko ditugu?
- Teknizismoak eta gaztelaniaz dauden espresio propioei zelan aurre egin?
- Euskarak berak dituen esamolde eta hitz jokoak irudikatzeko interes handia.


Goiz horretan pasa genituen minutu gutxitan “FEEDBACK” handia lortu nuen. Wikitotikarren parteartzea ere bultzatzeko, bakoitzak garrantzitsu ikusten zituen 5 kontzeptu eskatu ziren hasierako glosategi horri hasierako bultzadatzeko eman ahal izateko.

Bertatik ideia asko baster batera utzi genituen eta beste hainbat gehitzeko segurtasuna izanik, momentu horretan bertan hasi zen “MEME”en iraultza.



➔ **M**emeak, 2018.03.19 (astelehena), sortzen hasteko lehen kontzeptu, esamolde, hitz, hitz-joko, esaerak.. biltzen hasi gara, bai Wikitoki-tarrek beraiek bidalitako hainbat ideia eta baita aurretik Wikitokiko Testamentu edo Itunean agertzen diren hitz askorekin ere.

MEMEAK bezalako gauza xume baten bitartez Wikitokiko erabiltzaileen artean ohikoak diren hitz puskak eta esamoldeak irudikatzeko eta aldi berean Hieroglifiko glosario hau komunikabide tresna bilakatzearen arrazoia.




➔ **G**losategian, 2018.03.23 (ostirala), parte artzen hasia da jendea:

- Gremlins, Bla, bla, bla..., Lio, Tupperware, Auzolan, Contagio, Confianza, Mente, Aire, Fuego, Ongi etorri, Abrazo, Elkarrekin, Arte, Feminismoa, Harremanak, Esperimentazioa, Caza Gremlins, Gogor Hor, Tiempos comunes, Sostevidadavilidad, Interdependencias, Desecidad, Autocobayas, En colectivo es cansado, solas es imposible, ¿Cuántas redes puede sostener un cuerpo?, Hiria, Parte-hartzea, Eraldatzailea, Soziala, Garapen kolektiboa, Mugimendua, Ikaste prozesua, Código abierto...

Me/memoria

➔ **I**kuz, 2018.03.25 (igandea), nortasunari erreparatzen hasita, Wikitoki elkarteak daukan imaginaren inguruan ikerketa lanak asten dira. Aldez aurretik *Saioa Olmok* eginiko Wikitokiko “Identitate Bisual”a izango zen abiapuntu Euskara egonaldian landuko genituen irudien itxura, tamaina, kolorea, forma... arautu eta zehazteko.



Erabili beharreko tipografia ere eta honek izango zituen erabilpenak ere finkatu genituen aurrek eginik emandako Diseinu lanari esker.

MISO BOLD eta **MISO REGULAR**



➔ **P**lantilla, 2018.03.28 (asteazkena), edo, eta Txantiloit bat sortzen da Adobe Illustrator bidez Memeak modu erraz eta mekanikoago batean landu ahal izateko. Bertan marrazkiak izango dituen trazua mota, kolore eta tamainak aldez aurretik finkatzen dira. Baita testuak eramango duen kokapena eta tipografia ere.

Metodologia honekin lana aurrezteaz gain honek daraman denbora eta are garrantzitsuagoa den, KONPLEXUTASUNA murrizten da.

Horrela sortuko zen “MemeMakiña” bezala baitaiatutako software tresna.




Dena dela, “MemeMakiña” honek azkar jasoko zituen hainbat eta hainbat eraldaketa, edo, hobekuntza. Hauetako lehena, Adobe Illustrator bezalako programa pribatu eta garesti batetik, Wikitokiko filosofiarekin bat datorren SOFTWARE LIBREarekiko egindako apustua bertan behera ustea ekiditzeko GIMP programa irekiarekin garatzea izan genuen ondorengo helburua.

Me/memoria

➔ **L**ehen, 2018.04.04 (asteazkena), irudi sorta kalean genuen, bai kalean eta erabilgarri. TELEGRAM online mezularitza aplikaziora egokituak eta Wikitokitarren elkarrizketetan, BANG! bidaltzeko prest. Ilusio handiz lehen 30 Sticker abiatu genituen online mundura, eta hauek erabiltzaileen artean zuten erabilpen jarraipen bat hasi.

Software libre honek eskaintzen zizkigun abantailetakoa bat horixe bera zen eta, STICKER ak sortu eta kudeatzeaz gain, hauexek duten erabilpenari buruzko datuak momentu oro ikusteko ahalmena.




Kasu gehienetan euskaraz landu eta erabili nahi ziren hitzak egunerokotasunean aurkitzen ditugun espresio komunenak direla jabetu ginen, “KAIXO” eta “BIHAR ARTE” bezalakoak adibidez.


EGUN ON?

➔ **T**elegram, 2018.04.18 (asteazkena), eta GIMP ez ziren bat ere ondo konpontzen. Software librearen aldeko apustu egin genuen momentuan ez genituen hainbat aspektu tekniko kontuan izan eta atzera pausoa egitera behartu gintuen teknologiak, PHOTOSHOP edizio programara hain zuzen ere.



Bertan garatu behar izan genuen gure “Meme-Makiña” definitiboa azkenean. Erabiltzaile berrientzat intuitiboki lantzeko bezalako plantilla xume bat egin dugu, bertan pauso gutxi jarraituz bakoitzak bere “Meme” propioak garatzeko ahalmena eskainiz.



➔ **H**orixe, 2018.04.25 (asteazkena), bera izan zen eta proiektu honetan hasi ginen momentutik geneukan helburuetako bat. DIY(Do It Yourself) filosofiatik datorren Zuk Zeuk Egi-zu pentsamoldean oinarritutako lan honekin, bakoitzari bere imaginarioa sortzeko gain izateko ahalmena eskaintzea.



Me/memoria

4 -Sakatu CTRL + SHIFT + S tekla eta gorde zure "MEME" a PNG formatuan. -Sakatu CTRL + , tekla sakatuta gidak ikusiko ditugu, dena txukun eta zentratuta atondu ahal izateko. -Begian "kilik" eginda, kapa eskuatuko dugu.  -Zabandu "TELEGRAM" aplikazioa, eta bertan  Search barruan bilatu STICKERS hitza. -Jarraian azaltzen den  Robotaren aginduak jarraitu; /newpack - crear un nuevo pack de stickers /addsticker - añadir un sticker a un pack existente /editsticker - cambiar emojis o coordenadas... 5	3 adibidez.  kapa barruan. -Marratzu zure monigotea,  -Bla, bla, bla, eta erabilgarri izango dituzu zuk zeuk eginiko "STICKER", "MEME" edo delakoak.  -Edozein galdera; mikelagina@gmail.com. 6
--	---

Me/memoria

1

Deskargatu QR edo link bitartez
MEMEMAKIÑA2.1" fitxategia.
Instalatu "MISO" iturria, "FONTS"
fitxategian.
Zabaldu Photoshop programa
itartez.

https://mega.nz/#Fiagnx15
SisIW7MK4Y2kX_Z0yVJ_K7_g

2

adibidez.

-Idatz! TESTUA
kapa barruan.

MEME

MAKIÑA

VIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia
Laboratorio de prácticas colaborativas

Me/memoria


➔ **M**anuala, 2018.05.02 (asteazkena), prest!!! Bertan adierazten diren sei pausoak jarraituz zure memeak eskuragai lema azpian, fisikoki eta QR iruditxoari ezker “Online” dergargatu ahal izateko aukerarekin. Oraingoan baina, bide honetan asko baino gehiegi lagundu digun Ziortza izango zen gure “Indietako untxitxoak”. Diseinu abilezia handirik gabeko aukeratu dugun lehen bolondresak froga pasa du, eta bere lehen “Meme-Sticker” propioa TELEGRAMEN kargatu du.



Beraz, esan genezake gure “MemeMakiña” bizi-rik zegoela.

➔ **B**aina, 2018.05.16 (asteazkena), izango da Wikitokitar guztien aurrean gure sorkuntza aurkeztuko genuen eguna. Bertan horrelako “TUTORIAL” izango balitz bezala pausoz pauso jarraitu genuen diseinatutako txostentxoak eskatutakoa Bakoitzari beharrezko zituen tresnak pasa genituen Wikitokin bertan “Rulatzeko” utzi genuen memoria batean: Argibideak, Telegram aplikazioa sakonago azaltzen zuen idazki bat, Photoshop programa erabilgarria eta beste oparixoren bat edo beste.

➔ **S**ticker, 2018.06.01 (ostirala), sorta ugaritzen. Glosategi interesgarri iruditzen zitzaizkigun kontzeptu berriz ornitzen eta mugikorrez mugikor saltoka ibiliko ziren laguntxoak sortzen. Baziren jada, hasieran planteatu genituen 100 “Memetik” 70 bat erabilgarri eta martxan momentu horretan. Beraz hilabete pare bat lehenago hasitako ibilbidearen bukaerara iristen hasiak gintera ere asimilatzeke momentua bazen.



➔ **H**ondatzen, 2018.06.14 (osteguna), elkatu ginen berriz, Wikitokiko hondartzan hain zuzen ere. Bertan egunera arte ekoiztutakoari buruz hizketan aritu ginen, baina hori baino garrantzitsuago izan zen “COPYRIGHT” lizentzia motei buruz.

Euskara eta erlazioen arteko praktika kolaboratibo hauetan landutako material guztia “Non”, “Nori” eta “Zelan” eskainiko genion planteatzeko ordua heldu zen. Ikerketa lanetatik proiektuaren amaierararte zihoan esperientzia hau libreki zabaltzeko, “CREATIVE COMMONS” lizentzia mota baten azpian partekatuko genukeela adostu genuen momentu horretan.

 **creative commons**



Me/memoria

➔ **L**egalki, 2018.06.28 (ostirala), mundura zabaltzeko prest eta gogoarekin, momenturarte Wikitokitarren artean bakarrik elkarbanatutako “Meme” “Sticker” edo dena delakoak aske uzteko momentua heldu da.

Egia esan prozezu osoan zehar izan dugu dilema hori, “Meme”, “Sticker” zelan kudeatu izendapen konplexu hau??

Funtsean memea birus baten moduan kontagiatzen den ideia bat da. Eta zenbaitzuek diotenez, garunetik garunera pasatzen diren ideiak eta irudi komikoak izan behar dira. Birus moduan funtzionatzen dute, komunikabideen birtualitatez zabaltzen dira.

Memeak ahalik eta laburren izan behar dira, testu gutxi eraman behar dute barne, adjetibo kalifikatzaileen zehar eginak, gogoratzeko errazak, eta hitzak sentimenduak esnatu behar dituzte, zerbait probokatu. Gure barnea mugitu behar dute.



Baina bueno.. laburbilduz, irudia eta testua biltzen dituen, eta era erraz batean zabaltzeko eta partekatu daitezkeen imajina birtualak dira.

➔ **A**zkenean, 2018.07.04 (asteazkena), hasiera batean proposatu genituen ehun iruditxotatik laurogeitahamar egitera heldu ginen. POKEMONak izango balira bezala, ez genituen den denak arrapatu, baina intentzioa ez zen puntu honetan planto egitea. Hutsik utzitako txokotxo hori betetzeko aukera hor dago, “MemeMakiña” martxan dagoen einen materiala sortu daitekeela argi dago, falta dena, eta are gehiago!!!

Euskaraz hornitu dugu sarea, orain honen erabilera sustatu eta zabaltzea da tokatzen dena, bai erabilpenetik eta baita sormenetik ere.



“MEMEMAKIÑA” DESKARGATZEKO
LINK BIDEA

➔ **W**ikitoki espazio barruan, Euskera Egonaldiaren barne garatutako proiektua. Mikel Aginagalde Bastardo – Esperimentazio Aldia: 2018ko Otsaila – Ekaina.



Este obra está bajo una licencia de Creative Commons Reconocimiento-CompartirIgual 4.0 Internacional.

